

Mondragon Unibertsitateak 10. urteurrena ospatzen du 2003-2004 ikasturtean graduatu ziren ikasle ohiekin

2014/05/15

MUkidek, Mondragon Unibertsitateko ikasle ohien elkarteak bultzatutako ekimen honen helburua, orain 10 urte unibertsitatea utzi zuten ikasleekin urteurrena ospatu eta berriz elkari ikusteko gune bat prestatzea da.

Maiatzaren 24an, topaketa hauek Goi Eskola Politeknikoan eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean izango dira.

Maiatzaren 31n berriz, Enpresagintza Fakultatean egingo da topaketa.

Kasu guztietan, topaketarako hitzordua eguerdiko 12:00etan izango da eta gutxi gora-behera, 2 orduko iraupena izango du ekitaldiak.

Tarte honetan, azken 10 urte hauetan Mondragon Unibertsitateak izan dituen aldaketen berri jaso, instalazio berriak ikusi eta tarte informal batetan, ardo bat haru eta pintxo batzuek jaten ditugun bitartean, lagunekin hitz egiteko aukera izango dugu.

Topaketa hauetan, gurekin izango dira, unibertsitateko Errektorea, Errektoreordea eta baita ere zentruetako Zuzendari/Dekanoak.

Topaketaren inguruko informazioa eta izena emateko aukera, <http://ikasleohientopaketa2014.mondragon.edu/eu> helbidean aurkituko duzu.

